

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea aurrekontuko lanpostu zerrendaren eranskina aldatzeari

Udalbatzak, 2026ko uztailaren 3an egindako bilkura berezian, hasierako onespena eman zion aurrekontuko lanpostu zerrendaren eranskina aldatzeari.

Espedientearen hasierako onespena 2026ko uztailaren 15eko ALHAOn argitaratu zen (80. zk.), eta haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onetsi da, eta, ondoren, horri buruzko erabakia argitaratzen da:

Udalbatzak, bertaratutakoen aho bateko adostasunez, aldeko hiru botorekin eta Lantziegoko PSE-EE PSOE udal taldeko bozeramailearen (Raquel Zabala Compañón zinegotzia) abstentzioarekin, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA. Hasierako onespena ematea indarrean dagoen aurrekontuko lanpostu zerrendaren eranskina aldatzeari, zeina Udalbatzaren 2026ko abenduaren 30eko erabaki bidez onetsi baitzen, baldintza hauetan:

Lanpostuaren izena: Administraria.

Eskala: Administrazio Orokorra.

Azpieskala. Administrazio Bereziko administraria.

Destino-osagarria: 19.

Berariazko osagarria: 14.395,78 euro urtean.

Aurrekontu partida: 920.121012 y 920.121013.

Zenbateko gordina, guztira: 36.622,88 euro.

BIGARRENA: Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoa betez, jendaurrean jarriko da udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian, aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko. Eskerak aurkezteko 15 egun balioduneko epea izango da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Erreklamazio horiek Osoko Bilkurari aurkeztu beharko zaizkio, eta hark hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

2026ko aurrekontuko lanpostu zerrendako langileen eranskina aldatzeko espedientea behin betiko onesteko erabakiaren aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi (2) hilabete izango dituzte, erabaki hori ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Lantziego, 2026ko abuztuaren 6a

Alkatea

ITZIAR DE ALAVA MARTÍNEZ DE ICAYA